

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

#### GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 470

*EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 23koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria-rena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin betiko emaitzak onartzen dituen.*

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariak, 2024ko abuztuaren 1ean emandako ebazpenaren bidez (EHAA, 2024-09-06, 174. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko emaitzak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko abenduaren 20ko ebazpenaren bidez onartu ziren (EHAA, 2024-12-27, 251. zk.), eta Azterneten eman ziren ezagutzera.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako erreklamazioak aztertu dira. Horregatik guztiagatik,

#### EBAZTEN DUT:

1.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztu diren erreklamazioen emaitzak ezagutzera ematea Azternet aplikazioan.

2.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin betiko emaitzak ezagutzera ematea Azternet aplikazioan.

Interesdun bakoitzak Azterneten kontsultatu beharko ditu bere azterketen behin betiko emaitzak, eta, hala badagokio, baita erreklamazioaren emaitzak ere: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPeko ohiko deialdiak (2024-08-01) < Emaitzak».

Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gora jotzeko errekurtoak Azterneten bidez aurkeztu beharko dira, epe horren barruan: «Eskabideak < Hizkuntza-eskakizunak < Eskabideen kontsulta eta jarraipena < IVAPeko ohiko deialdiak (2024-08-01) < Erreklamazio edo errekurto berria».

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 23a.

IVAPeko Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 artikulua eta 8.2.f) artikulua).

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkaria,  
NAGORE ALBERDI BERASALUZE.